



“Itzalak heldu zireneko eguna”

Hasieraren idazlea: Joan

Itzalak iparraldetik etorri omen ziren. Lekeitioko arrantzale batzuek ziurtatu egin zuten minutu erdiz gaua egin zela eguna argitu ondoren. Hasiera batean, ez zien inork sinetsi. Goiz erdian, ordea, ia-ia oinezko guztiek oinetan bi itzal zituztenean, alarma sortu zen. Egia esan, ez zen inor konturatu, harik eta Portuko eskale zahar bat barreka hasi zen arte, jendeak bi itzal zituela ikusi zuenean. Ezer aldatu ez zen arren, beldurra airean zegoen jendea, pertsonako bi itzal zeudela ohartzean.

- Ez irten etxetik, gero! - agindu zion Nadirrek Yanira alabari.

Dena dela, Yanira Mikelekin geratu zen. Hiru egun lehenago, debeku-seinalea aurkitu zuten lubakian, eta diana moduan erabiltzen zuten parkeko txoko gogokoenean. Gorriak 5 balio zuen; eta zuriak, 20. Yaniraren punteria oso ona zenez, irabazi egin ohi zuen. Orduan, haserre-plantak egin zituen, logelan sartu zen, burkoa izaren artean jarri zuen eta leihotik irten zen. Kareletik mentsulara, mentsulatik adarrera (jauzi zaila), adarretik enborrera: zorua, kalea. Yanira ez zegoen gustura, jendeak bi itzal zituen; eta berak, bat baino ez. Jendea presaka zihoan, euren izua isiltasun trinkoan ezkutatu nahian. Hala ere, egun arrunta zen, itzalengatik ez bazen. Mundu guztiak begiratzen ziola eta bakarrik zegoela sentitzean, Yanira korrika hasi zen. Mikel eserlekuan zegoen bere zain, eta bi itzal zituen oinetan.

- Itzalek ez zaituzte maite, antza.

- Ergel hori, itsusiengana baino ez dira hurbiltzen.

Mikelek harria bota zion, jokutzen hasi zedin. Yanirak, oster, itzuli egin zion. Mikelek berriro bota zion, eta Yanirak itzuli egin zion. Mikel, Yanira, Mikel. Yanirak nolabaiteko amorruaz jaurti zuen lehen harria laukizuzen zuriaren erdigunera.

Parkea ia-ia hutsik zegoen, asko eta asko etxera joan zirelako korrika. Bertan, babestuta sentitzen ziren, bonbillek itzal bakarria ematen zutelako. Etxean sartu eta telebista pizten zuten. Telebistan, aldiz, ez zioten ezer itzal bikoitzei buruz.

Yanira irabazten zihoan, baina artega zegoen:

- Zergatik ez ote dauzkat bi itzal?

- Ez kezkatu -esan zion Mikelek -laster gaua helduko da.

Halaxe izan zen, iluntzean bigarren itzalak desagertzen hasi ziren. Airean astintzean makilek sortzen zuten zarataz zihoazen, eta, erlekume laztuak zirela zirudienez, jendeak oihu egiten zuen. Mikel ikaratu egin zen bere itzalak alde egin zuenean, baina itzalek beldurraren beldurrez ihes egiten zutela esan zion Yanirak eta lasaitu egin zen. Itzalek alde egitean sortzen zuten zarata beldurgarria zen benetan.

Jarraipena eta bukaera: Olatz Izagirre

Yanira neska beltzarana zen, Keniatik bere amarekin patera batean Euskal Herrira duela urte batzuk heldua. Asko botatzen zuen faltan bere herria, baina gustura zegoen Euskal Herrian. Gustatzen ez zitzaion gauza bakarria kaleko jendeak begiratzen zuen modua zen. Inortxok ez zuen ondo begiratzen, Mikelen gurasoek ere ez, nahiz eta bere lagunik onena izan eta askotan joan bere etxera.

Yanira kezkatzen hasia zen, bera zelako, bere amarekin batera, bigarren itzala ez zeukan bakarria. Baina konturatu zen bera bezalako pertsona beltzek ere ez zutela bigarren itzalik.

Baina itzalek bueltatzen jarraitu zuten goiza heltzearekin batera. Jendea Yanira ikusteaz ohitu zen eta jadanik ez zuten txarto begiratzen. Horrekin batera, Yanira beste baten moduan onartu zutenen bigarren itzala desagerraraziz joan zen.

Yanirak teoria bat atera zuen, etorkinak gutxiesten zituenari bigarren itzala itsasten zion eguzkiak, zigor moduan. Etorkinak onartzean, bigarren itzala desagerrarazten zuen.

Geroz eta jende gehiago zegoen bigarren itzalik gabe, geroz eta jende gehiagok onartu eta laguntzen zituelako etorkinak. Jendea alaiago bizi zen eta itzalen beldurrik gabe. Bigarren itzala zuen jendea etxean ezkutatzen zen, etorkinen beldur zirelako eta etxeako argipean bigarren itzala agertzen ez zitzaielako.

Orain etorkinak onartzen ez dituzten umeei bigarren itzala hurbilduko zaiela esaten diegu, beldurra sartu nahian. Umeak txikitatik heziz, arrazakeria gainditu dezakegu.